

EUSKAL HERRIAREN DEMOKRAZIA ETA BAKERANZKO BIDEAN

Sarrera.

UDALBILTZAren sorrera ekitaldian, 1999ko irailaren 18an, historia modernoko lehen euskal erakunde nazionalak Euskal Herriaren eta bertako herritarren arazoei irtenbideak bilatzeko engaiamendua azaldu zuen Bilboko Euskalduna Jauregian. Harrezkero Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoako udal hautetsiok Euskal Herria nazio bezala badela ikustarazteko lanean murgildu gara, bertan eta beste herrien aitzinean. Nazio eraikuntza bultzatzea, gure egituratze sozial eta instituzionala jorratzea eta udalen arteko lankidetzatza garatzea dira orduan hartutako konpromisoak, egun burutzen dihardugunak.

1999ko hartan zein 2001eko abenduaren 15ean onartutako Adierazpen Instituzionalean, aintzat hartu genuen badela Euskal Herria, ezaugarri berezkoak eta aintzak dituen Herria. Eta horrekin batera azpimarratzen genuen Herri honek, historiaren aro ezberdinetan, bere herri-izaeraren onarpenarekin eta bere eskubideekin zerikusia duten gerra eta gatazka bortitzeko egoerak bizi izan dituela. Hau horrela, gaur egungo egoera politikoa eta egoera horrekin loturik gauzatzen diren adierazpide bortitz guztiak kontuan harturik, egungo gatazkaren ezaugarriak aldarazteko konpromisoa hartu genuen. Bake justu, finko eta iraunkorra ahalbidetuko duten baldintza berriak sortarazteko engaiamendua hain zuzen. Eta hau guztiau Euskal Herri osoa eta bertako biztanle guztiak aintzat hartzen dituen instituzio baten ekinbideaz egiten ari gara.

Herri honen historiaren azken garaiotan, eta baita gaur egunean ere, Euskal Herriaren existentzia aintzat hartu gabe egoera politikoan eragin nahi izan duten gertaera garrantzitsuak jazotzen dira, egoera horren gakoa edo muina gatazka politiko bat dela ezkutatu.

Aldi berean hainbat ekimen politiko burutu izan dira baldintza demokratikoen araberako konponbideen bilaketan. Ekimenok unean unean euskal gizartearen gehiengo batengan ilusio eta itxaropen handiak sortarazi izan dituzte.

Gertaera eta ekimen politiko oro oso errealitate konplexuaren baitan sortzen eta gauzatzen da hemen. Batetik, gatazka politikoa denez geroztik, Euskal Herria subjektu politiko gisa existitzen denik ere temati ukatzen duten estatu frantsesa eta espainola daude. Bestetik, bi estatuen jarrerarekin bat egin arren, euskal herritarrentzat konponbide demokratikoak beharrezkoak direla baiesten duten politika eta gizarteko hainbat eragile. Eta oro har euskal egoera politikoari buruzko pentsamolde ezberdin aintz izan arren, gero eta hedatuagoa da Herri honetan demokrazia posible egingo duen irtenbide politikoaren beharra ikusten duen iritzi soziala.

Azterketa horretatik abiatu, Instituzio honek lan garrantzitsu bat egitea erabaki zuen, alegia, euskal gizartearen aniztasunarekiko errespetua ekarriko duten baldintza berriak sortarazteko ahaleginean sakontzea. Bakeranzko bide horretan urrats eta epe mailakatuak urratu beharko ditugu, gizartearen bat egiteak bilatzu adostasun demokratikoa erdiesteko.

Egoera honetan lan aski zaila dirudi errealitatearen ikuspegi orokorra hartzeak, inplikaturik diren eragile guztiei entzuteak, kezka guztiak aintzat hartzeak, ikuspuntu guztiak biltzeak, ..., baina daitekeena ez ezik beharrezkoa ere bada, horretarako borondate politikoa edukiz gero, hori guztia egin behar baita konponbidea demokraziaren parametroetan kokatzeko.

UDALBILTZAK Miarritzen egindako bere azken Nazio Batzarrean “Euskal Herrian Bakerako Bideak Garatzeko Engaiamendua” deritzon Adierazpen Instituzionala landu zuen, eta bertan konpromiso garrantzitsu bat hartu genuen, Euskal Herrian bizi dugun egoerari elkarrizketaren bidezko irtenbide politikoa emateko ekimena bultzatzekoa alegia, horretarako euskal esparruan diharduten eragile guztiakin kontaktu eta harremanak ezarriz. Horrekin batera, eragile horien guztien iradokizun, iritzi, kritika eta proposamenak ezagutu eta jasotzeko konpromisoa hartu genuen. Eta ondoren bake egoerarantz hurbilduko gintuzkeen baldintza berri eta zorrozki demokratikoak sortarazten lagunduko duen proposamen bat burutu genuen.

“Aurrebaldintzarik eta inoren bazterketarik gabeko elkarrizketa da biderik emankorrena, beharrezko diren errealitate berriak sortaraziz, elkarguneak eta elkar-ulertzeko eszenatokiak erdiesteko”, horixe dugu oinarritzko ideia. Eta tresna horren, elkarrizketaren, lehen jokaleku eta praktikarako esparru UDALBILTZAK berak izan behar du, Euskal Herriko Udal eta udal hautetsi guztientzat zabalik dagoen udal-oinarriko nazio instituzioa den heinean.

AZALPENEN ATALA

1) Eginiko lanaz.

Aipatu Adierazpen Instituzionalaren inguruan egindako lanaren zati bat Euskal Herri osoko alkate eta zinegotziekin elkarrizketa eta eztabaida bultzatzea izan da, UDALBILTZAK berak Euskal Herriaren bake eta demokraziaranzko bidean gero eta funtzio politiko garrantzitsuagoa bete dezan. Honetan azpimarragarriak dira udal hautetsien ekarpenak. Berauetan, euskal esparru politikoan egun diren iritzi ezberdinak jasotzen dira, posizio politiko ofizialek baino malgutasun maila handiagoa duen herri edo udalgintzaren ikuspegiez jantzirik. Ekarpenotan, era berean, argi agertzen da gure Udaletako hainbat ordezkari eskubideen urraketak definituriko egoeran burutzen dutela beren jardura politiko.

Era berean, hainbat udal hautetsi, ikuspegi politiko ezberdinak izan arren, bat datoz UDALBILTZA etorkizunerako erreferentzia politiko instituzionaltzat hartzeko orduan. Eta hainbatek uste du udal hautetsiek eurek izan behar dutela udal-oinarriko nazio instituzio honek egun falta duen funtzionamendu bateratua abian jartzeko ekimenak bultzatu eta antolatu behar dituztenak. Hau guztia, beti ere, UDALBILTZAK Euskal Herriarentzat demokrazia eta bakea lortzeko bidean burutu beharreko lan politiko sakontzeko helburua gidari harturik.

Honekin batera UDALBILTZAK azken hilabeteotan elkarrizketari ekin dio politika, gizarte zein sindikalgintzako eragile anitzekin. Hortik jaso ditugu bake eta demokraziaranzko bidean aitzinatzeko eragileok planteatzen dituzten iritzi eta ekarpenak. Jarduera hau berau ere aurrebaldintzarik eta inoren bazterketarik gabeko elkarrizketa praktikan jartzeko ekarpen emankor gertatzen ari zaigu eta arduraz burutzen ari gara, jakinik ezinbesteko tresna dugula edozein gatazka politiko konpontzeko bidean.

Euskal Herriko errealitate politikoari buruz dauden iritzi, iradokizun, ekarpen eta proposamen guztiak jasotzeko zailtasuna aipatu behar dugu: zoritxarrez oraindik badirelako hainbat eragile politiko eta sozial, Estatuaren estrategiarekin bat egiten dutenak, elkarrizketa berari uko eta UDALBILTZAK luzaturiko gonbiteari muzin egin diotenak. UDALBILTZAK, egungo egoeran, honako hau azpimarratu behar du tamalez: egun badira elkarrizketa bera tresna gisa ukatzen duten sektoreak, horretara denon artean eta denontzat erdietsi beharreko egoera baketsu eta demokratikoa lortezin bihurtzen dutenak. Hala ere, posizio politiko hau jasotzerakoan, UDALBILTZAK agente politiko eta sozial guzti hauei elkarrizketarako

deia berretsi nahi die, jakinik, sortu nahi dugun egoera berri hori erdiesteak denon esku-hartzea eskatzen duela.

Halaber, azpimarratu behar dugu hainbat direla egungo egoeran elkarriketari baietz erantzun dioten eragile politiko eta sozialak. Horrez gain, eragile horiek, ñabardurak ñabardura, bateratsu datoz hainbat hausnarketatan:

Guztiak onartzen dute honako egiaztapen hau: denboran zehar luzaro dirauen gatazka da eta gatazka horren oinarrian giza eskubideekiko begirune arazoa dago. Egoera honek gizarteko arlo zabalengan du eragin zuzena eta oso negatiboa.

Konponbidea ere giza eskubideen alorrean planteatzen da, giza eskubideekiko begirunean. Oinarrizko akordio honekin batera oinarrizko desadostasun bat ere ageri da. Desadostasuna honexetan datza, alegia, posizio ezberdinetatik indar gehiago ala gutxiago jarri izanean eskubide indibidualen errespetuaz eta giza eskubide kolektiboen errespetuaz balorazioa egiterakoan, eskubide multzoen mailaketa eta banaketa eginez ala multzo berean jarriz.

Eragile askok konpartitzen duten beste puntu bat Estatuei buruzko hausnarketan datza, herrien eskubide kolektiboei muzin eginez eraiki direla uste baitute. Iritzi honen baitan estatuon legitimitate demokratikoa bera ere zalantzan jartzen da. Iritzi hauen arabera eskubide politiko, linguistiko, ekonomiko eta kulturalen ukazio sistematikoan datza gatazka. Eta eskubideon bermerako markoa galdegiten dute, horren aldeko edo aurkako gehiengo eta gutxiengoen gaineratik eta unean uneko indar politikoen arteko korrelazioaz edo abagune politikoez gaindi. Egun indarrean den marko juridikoan oinarriturik euskal borondatearen ukazio estrukturala gauzatzen dela dio iritzi honek. Borondate horren orde borondate nazioz gaindikoak, estatalak, ezarri dira, subiranotasunaren delegazio printzipioaz sekula legitimatu ez diren borondateak. Posizio honetatik uste da konponbide demokratikorako oinarrizko printzipioek aintzat hartu behar dituztela Euskal Herria eta beronek erabakimen askerako duen eskubidea.

Zentzu honetan, elkarriketa prozesu honetan parte hartu duten eragile asko bat datoz onartzean autodeterminazio eskubidearen aintzatespenean dagoela edozein adostasun demokratikorako gutxienerako zutabea. Gainera, adostasun zabalez berresten dute Euskal Herriari dagokiola eskubide honen garapena eta beraz Euskal Herria dela eskubide honen subjektu politikoa.

Hala ere, eta egungo lurralde zatiketa kontuan harturik, Euskal Herriaren nazio izaera zalantzan jarri gabe, eskubide horren garapen praktikoari buruz iritzi ezberdinak daudela ere aipatu behar dugu.

2) Eskubide indibidual eta kolektiboen gaia Nazioarteko Zuzenbidean.

Nazioarteko zuzenbidearen esparruan, gizakien eskubideen inguruko gaia eta eztabaida, eskubideok indibidualak edo gauzatze kolektibokoak izan, ezin dira amaitutzat eman. Aitzitik, azken mende eta erdian alor honetan emandako aurrerapen eta aldaketak hain garrantzitsuak izan dira ezen nazioarteko ingurunea ere aldatu duten, eta aldaketok estatuen barnean ere eragin handia izan dute.

Batez ere bigarren mundu gerraz geroztik, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak deiturikoak biltzen dituzten nazioarteko tresnak, eta eratutako estatuen barneko "carta magna" agiriak ugaritu izan dira.

1948ko abenduaren 10ean eman zen argitara “Giza eskubideen Adierazpen Unibertsala”, eskubide indibidualei dagokienez joan den mendeak ekarritako oinarritzko katalogo eta erreferentzia izanik. Honekin batera 1948ko abenduaren 9ko “Genozidio delituaren prebentzio eta zigorrerako hitzarmena” agertu zen. Eta ostean 1951ko uztailaren 28ko “Errefuxiatuen estatutuari buruzko konbentzioa”; 1952ko abenduaren 20ko “Emakumearen eskubide politikoei buruzko hitzarmena”, 1965eko abenduaren 21eko “Arrazagatiko diskriminazio era guztien deusezteari buruzko nazioarteko konbentzioa” eta “Tortura eta beste tratatu txar edo zigor krudel, gizagabe eta itsusgarrien kontrako konbentzioa” etorri ziren, besteak beste.

1950eko azaroaren 4an sinatu zen halaber “Giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen babeserako Europako hitzarmena”. Honek bere eremuan eskubideen aitortza eta babeserako sistema bat arautu zuen. Sistemaren oinarrian Giza Eskubideen Europako Epaitegia martxan ezarri zuen, hitzarmen honen estatu sinatzaile bakoitzaren jokabideak ezagutzeko gaitasunaz hornitua.

Testu hauetan oinarritzko eskubide indibidualak ageri dira: bizitza eta osotasun fisikorako eskubidea, tortura eta tratatu txarren debekua, askatasun eta segurtasunerako eskubideak, bizitza pribaturako eta intimitaterako eskubideak, pentsamendu, kontzientzia eta iritzi askatasunerako, ideien adierazpen askerako eskubidea, biltzeko eta manifestatzeko askatasuna...

1966ko abenduaren 19an sinatu ziren “Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna” eta “Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna”. Bertan ageri dira autodeterminazio eskubidea, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo beste edozein aldagairen araberrako bazterkeriarik gabeko berdintasuna; biltzeko eskubidea, gai eta zeregin publikoetan parte hartzea, hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea, lanerako eta sindikatatzeko, osasun fisiko eta mentalerako eskubidea...

1974an Kooperazio eta Segurtasunerako Europako Erakundeak bultzaturiko bilera bat burutu zen. Bertan mendebaldeko Estatuak demokrazia, segurtasuna eta estatuon arteko kooperazioari zegozkion oinarritzko printzipioak ezarri zituzten. 1975eko abuztuan sinatu zen bilkura honen Azken Akta, bertan printzipioen aldarrikapena jasotzeaz gain, ingurugiro gaitetan, ekonomian, gai zientifikoetan zein teknologikoetan kooperazioa aldarrikatuaz. Halaber giza eskubideen inguruko kooperazioa, zein kulturaz, hezkuntzaz edo informazio eskubideaz eman beharrekoa zehaztu zuten.

Printzipioen aldarrikapenari dagokion dekalogoan bildua dago autodeterminazio eskubidea.

Eskubide hauek, bereziki gizakiak indibidualki ukitzen dituztenak, XX. Mendearen bigarren erdian onartutako konstituzio anizteta agertu dituzte Estatuak.

Aldiz giza eskubide kolektiboek, bereziki autodeterminazio eskubideak, ez dute antzeko islarik izan. Ziur aski Estatu batzuek, beren barnean gatazka egoerak bizirik, euren egungo statusa kolokan ikusiko luketelako eskubide hori aitortu edo gauzatzekotan.

Labur azaldu den marko honek argi uzten du gaur egun Estatu baten izaera demokratikoa baloratu eta sailkatzeko oinarri oinarritzko irizpidea dela eskubide indibidual eta kolektiboenganako begirunea. Eskubide hauekiko errespetu ezak bere hiritarren eskubideen kontra ari den Estatu legez markatua geratzeko arriskua sortzen dio estatu orori eta nazioarteko komunitateak oso balore handiko irizpidetzat hartzen duen barneko zein kanpoko segurtasuna kolokan jartzen duten gatazkak sortzen ditu.

EBAZPENEN ATALA

1) Nazioarteko Zuzenbidean oinarrituriko konponbiderako marko baten aplikazioa Euskal Herrian.

Euskal Herriaren egungo egoera politikoa bere konplexutasun guztiarekin gogoan izanik eta honako hauek guztiak KONTUAN HARTURIK:

1.-Euskal Herria milaka urtetan zehar Aturri eta Ebro ibarren arteko lurraldean bere historia egiten ari den Herri bat da, ezaugarri berezko eta anitzez hornitua eta bere herri-izaera horren aintzatespen juridiko-politikorik oraindik ez duena.

2.-Euskal Herriaren errealitate politikoaren parametro nagusien inguruan oso diagnostiko ezberdinak daude euskal eragile sozial eta politikoen artean, eta egoera politiko honek gatazka izaera du egun, honek dakartzan bortxazko adierazpide guztiekin.

3.-Aldi berean eragile sozio-politiko batzuen artean badago egon diagnostikoaren inguruko adostasun maila garrantzitsua. Adostasun puntuok ordea ez dute lortu bake egoerarantz aurrera eragiteko moduko baldintza berriak sortzerik.

4.-Elkarrizketaren inguruko errealitatea kontraesankorra da: hainbat sektore politiko, sindikal eta sozialen mezuetan elkarrizketa beharra azpimarratzen bada ere, eragileon arteko komunikazio falta azken urteotako ezaugarri nabarmena da. Halere, azpimarratzekoa da bai Estatuak zein Estatuaren estrategiarekin Euskal Herrian bat egiten duten eragile politiko eta sozialek elkarrizketari nonahi eta mezuetan ere uko egiten diotela.

5.-Bada gure herrian euskal nazio identitatearen sentimendua, baina egungo errealitateak eragotzi egiten du honen garapen politikoa. Areago, euskal herritarrok euskaldun gisa ez dugu inongo eskubiderik bermatuta.

6.- Baita ere badira hemen espainiar eta frantziar nazio identitate sentimendua dutenak, horietarikoen eskubideak espainiar zein frantziar herritar gisa Euskal Herrian egun indarrean diren marko juridikoek bermatzen dituztelarik.

7.-Elkarrizketan zintzo eta zabal jardunez gero, jauzi handia egin daiteke: besteari alde aurretiko eskakizunak planteatzetik prozesu dinamiko bat martxan jartzerainokoa. Eta uneoro lortu ahal diren konpromisoek elika dezakete prozesu dinamiko hori, akordio biltzaile edo barruratzailak ekarriz, egoera politikoan eragin positiboa izango dutenak.

8.-Egungo nahiz etorkizuneko Euskal Herriaren errealitate politikoa zuzenduko duten parametroak ezartzerakoan, hauek, ikuspuntu politiko ezberdinetatik taxutuak izan arren, beti eta hutsik gabe izan behar dute barruan giza eskubide indibidual zein kolektibo zenbaiten aintzatespen teoriko eta praktikoa.

9.-Eskubideen arteko mailaketaz egun dauden posizio politikoak gainditu beharra dago, pertsonen eskubide indibidual eta kolektiboak osotasunean aintzat hartuz.

10.-Egungo euskal errealitate politikoa oso konplexua izanik ere, bada eragile politiko, sindikal, sozialengan eta gizartearengan oro har iritzi komun bat: egungo egoera gainditzeko premia, demokrazia eta bakeranzko bidean aurrera eginez.

11.-Konplexutasun horren baitan beste oinarritzko iritzi komuna eskubideen ingurukoa da: gatazkaren oinarrian giza eskubide indibidual eta kolektiboen urraketa dagoela.

Horiek guztiak, bada, aintzat harturik, UDALBILTZAk ondokoa ADIERAZTEN DU:

1.- Euskal Herriak bizi duen errealitate politikoak prozesu bat abiatzea eskatzen du. Prozesu honen bidez, gure herriak, euskal herritarrek zuzenean parte hartuta eta bere ordezkari dituen eragile instituzional, politiko eta sozialek ere esku hartuta, etorkizuneko esparru politikoa gidatuko duen eskubideen markoa definitu beharko du.

Demokrazia politikorako marko honen oinarrian euskal gizartearen aniztasunarekiko errespetua kokatu beharko da, proiektu politiko guztiak egikaritu ahal izateko baldintza berdinetan egonik, proiektuok gauzatzeko muga bakarra euskal herritar guztien borondate askeaz emandako babes soziala izango delarik.

Demokrazia politikorako marko honek Euskal Herriko herritar guztien eta bakoitzaren eskubide guztiak bermatu beharko ditu, guztien arteko oinarritzko adostasunetik ahalbidetu eta gauzatu da gure herrian diren proiektu politiko ezberdinen adierazpidea.

2.- Demokrazia zein bakerako planteatzen den eskubideen marko horren definizioak nazioarteko zuzenbidean izango du bere oinarria eta erreferentzia nagusia: 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna,... Halaber zenbait eskubide indibidual eta kolektiboren inguruko bermeen definizioa egoera politikoan lortu beharreko aldaketa positiboen bultzatzaile izango da.

3.- 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, 1966ko abenduaren 19ko Eskubide Zibil eta Politikoen Itunean, eta oro har nazioarteko zuzenbidean eta hitzarmenetan definitzen diren eskubide guztiekiko errespetuarekin hartu beharreko konpromiso kolektiboa izango da Euskal Herriko marko demokratikoaren zutarrria. Konpromiso hau unibertsaltasunez, aldiberekotasunez eta elkarrekotasunez aplikatu beharko da eskubideei dagokienean.

4.- Euskal Herriaren nahiz euskal herritar ooren eskubide guztien aintzatespenean oinarrituriko marko demokratikoaren eraikuntzak etengabeko akordio eta adostasun politikoen sortze-prozesu dinamikoa eskatzen du, horretarako urrats bakoitzak hurrengoa elikatuz eta gehiengo politiko nahikoaz eraikitako prozesu soziala ehunduz pausoz pauso.

5.-Euskal Herriak eta, beraz, bertako herritar guztiek erabakiko dituzte, erreferendum bidez, beren etorkizunean esparru demokratikoa gara dezaten beharko duten eskubideen markoa aplikatzeko bideak.

2)Konponbiderako prozesuaz eta eragile sozio-politikoek ekarpenaz

Euskal gatazkaren konponbideak nazioarteko zuzenbidean biltzen diren eskubide guztien aintzatespena eskatzen du parte guztien aldetik; eskubideon gauzatzea Euskal Herri osoan nola egituratu ere akordio politiko zabal baten bidez

ebatzi beharko da. Bi baldintza hauek gizarte osoaren mobilizazio demokratikoa eskatzen dute.

Halaber, eragile politiko, sindikal eta sozial guztien eta bakoitzaren aldetik, guzti-guztiok irabazle ateratzea lortuko duen konponbide osoaren aldeko apustua eskatzen du, alde batera utzita norberak duen proiektu politikoaren inposaketarako edo garaipenerako nahikeriak.

Lehen konpromisoa, eragin beharreko aldaketa guzti hauetan esku-hartzaile izatekoa da, eta ildo honetatik UDALBILTZAK ondoko hausnarketa hauek plazaratzen ditu:

1.-Herritar guztiei, erakunde politikoei, kultur elkarteei, sindikatu eta gizarte zein erlijio arloetako eragileei, aldeko jarrera aktiboaz prozesu hau bultzatzen eskatzen die. Prozesu honetan, instituzio nazional honek Euskal Herriaren errealitate politikoan esku hartzen duten eragile guztiekin etengabeko elkarrizketaren ekimenean sakontzeko konpromisoa hartzen du.

2.-Ekimen honen baitan UDALBILTZAekin hartu-emanen egon diren eta dauden eragile politiko eta sozial guztiei denon artean dinamika honetan mekanismo eta tresna berriak sortzen ahalegintzeko eskaera egiten die, orain arteko elkarrizketa praktika modu zehatzetan gauzatuz joan dadin eta, horretara, Euskal Herriaren bake eta demokrazia bidean ekarpen baliagarriak sortaraz daitezten.

3.- Ekimen honetan eta elkarrizketa prozesuari uko egiten dioten agente sozial eta politikoei beren jarrera aldatu eta beren ezinbesteko ekarpenak egin ditzaten eskatzen die. Hartara, UDALBILTZAK ireki eta baldintzarik gabeko mantentzen du bere jarrera, guztion arteko elkarrizketa errealitate bihurtu nahirik.

4.- Euskal Herrian diharduten erakunde eta alderdi politiko guztiei, euren artean beharrezko harreman eta elkarrizketei ekin diezaieten eskatzen die, etorkizunean konpromiso politikoak sortarazteko bidean. UDALBILTZAK elkarrizketa eta harreman hauek bultzatzeko borondatea azaltzen du argiro.

5.- Euskal Herrian diren Instituzio ordezkari guztiei, berriz, sortuz joango diren egoera berriei erantzuteko ardura har dezaten eskatzen die. UDALBILTZAK berari dagokion ardura bere gain hartzeko borondatea azaltzen du argiro.

6.-Estatu frantziar eta espainiarrari, ordea, euskal gizartearen prozesu honetan esku-sartzerik ez izateko eta beronen garapen zein ebazpen faseetan hartuko diren erabakiak errespetatzeko deia egiten die.

7.-Nazioarteko Komunitateari, aldiz, UDALBILTZAK Euskal Herrian zabaldua den prozesu soziala bermatzeko egoki diren gainbegiratze-tresnak eskaini eta aisatzeko eskaera egiten dio.

3)Euskal Herrian bakea eraikitzeko, Euskal Herriaren eskubideen aldeko apustu irmoa egiten du UDALBILTZAK.

Aurreko guztiaren ondorioz,

Kontuan harturik funtsean eskubideen zanaketa datzala Euskal Herriak bizi duen gatazkaren oinarria,

Gogoan izanik eskubide ororen aintzatespen eta errespetuan eraiki daitekeela bake egoera berria Euskal Herrian,

Kontuan izanik egun euskal herritarrok ez garela eskubideen subjektu gisa aintzat hartuak,

Bake egoera horren aldeko bidean, UDALBILTZAK honako KONPROMEZUA hartzen du:

Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideen markoa zehazteko bidean EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN KARTA egitea.

Karta hau egitean zera dugu helburu, alegia, nazioarteko zuzenbidean izaera unibertsalez aintzatesten diren eskubide guztiak euskal herritar ororen errealitateari atxikitzea.

Karta hori egiteko prozesuaren oinarritzko ezaugarria esku-hartze herritarra da. Hau da, euskal herriko herritar guztientzat zabalik dago eta egongo da, banaka nahiz taldean nahiz erakundeetatik egin nahi diren ekarpenak jasotzeko. Honetan, UDALBILTZAK adierazi behar du esku-hartze herritarra bermatzeko beharrezko diren baliabideak erabiltzen ari dela eta proposa daitezkeen beste mekanismoekiko jarrera erabat irekia duela.

Halaber, Eskubideen Karta horren definiziotik ondoriozta daitezkeen eginkizun politiko-sozialean gizarte eta politika eragileen esku-hartzearen beharra dagoela azpimarratu nahi du, Euskal Herriko demokrazia eta bakeranzko bidea mekanismo hertsiki demokratikoetan oinarrituta egon dadin berma dezagun.